


2021 irailetik abendura

PROGRAMA



DONOSTIAKO
EMEKUMEEN ETXEA

okendo kalea 9, Donostia

AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasunean eta feminismoan oinarritutako gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.

Helbidea

Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa

943 48 34 70

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00

E-mail

info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:

donostiakoemakumeenetxea.com

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea** Irailaren 1tik 12ra arte egingo da. Betetzen ez diren ikastaroen izen-emate epea, ikastaroa hasi arte luzatuko da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaitetz Emakumeen Etxera.
- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, edo ikastaro berrietan parte hartu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.
- Ikastaro eta tailer elebidunetan, gutxienez, euskara ulertu behar da.
- Egoeraren arabera jarduera eta zerbitzu guztiak presentzialak edo on line izan daitezke.

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hatzaile berrientzat.



INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Dinamizatzailea: ENARAK Koop.
Katherine Astudillo

Eguna: asteartea

Ordua: 16:30 - 18:30

Hasiera: irailak 14

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirekin duten harremana eza-gutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea: Berdintasun Saila



NESKA GAZTEENTZAKO JABEKUNTZA GUNEA

Dinamizatzailea: Lahia 3.0
Itsaso Cañada Peña
Eguna: asteartea
Ordua: 17:30 - 19:30
Hasiera: irailak 21
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna



Donostiako Emakumeen Etxean neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutakoa da. Gune honetan Feminismoarekin, Jabekuntzarekin, Harreman Parekideekin... lotutako gaiak lantzen dira eta Jabekuntza prozesu bat bezala planteatzen da.

Zeini zuzendua?

15 – 20 adin tarteko neska eta genero anitzeko orori.

Nola Bideratu?

Astelehenetako Biluzik Zerbitzura hurbilduz daiteke, biluzikzerbitzua@hotmail.com helbidera edo [lahia3.0](#) instagrameko kontura idatzi daiteke edo Donostiako Emakumeen Etxearekin harremanetan jarri eta neskarekin zita bat jarriko dugu, beraren beharrak eta nahiak ezagutzeko.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

TALDEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Dinamizatzailea: Mainer Andonegi
Eguna: asteartea,
hamabostero
Ordua: 14:30 -16:00
Hasiera: irailak 14
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Talde gune bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinesmen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bizitza autonomo eta indarkeriarik gabeari aurre egiten.



Antolatzailea: Berdintasun Saila

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Dinamizatzailea: ELKARTU
Rosa Ugalde Urbiztondo

Eguna: ostirala
Ordua: 11:30 - 13:30
Hasiera: Irailak 10
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna



Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Dinamizatzailea: ENARAK koop.
Tania Cañas Siriany

Eguna: osteguna
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: Irailak 16
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoak eta taldearen lorpenak. Osasun fisiko eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kulturantzatasuneko Saila

FORMAKUNTZARAKO BLOKEAK

EMAKUMEAK ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA,
FEMINISMOA PENTSATZEN ETA
PRAKTIKATZEN, EKONOMIA FEMINISTA,
AUTONOMIA, FEMINISMOA ETA
PLAZERRA.

Gai zehatzak lantzeko gune trinkoak,
non diskurtsoak sortzen ditugun eta
elkar hartzen dugun, formakuntzen
bitartez elkar ahalduntzeko xedea-
rekin.



INDARKERIA IKUSEZINA? ARTEAN DAGOEN EMAKUMEAREN IRUDIA

(8 saio)

Formatzaileak: Lola Roldán.

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Tokia: GANDHI aretoa,
Aieteko Jauregia

Hasiera: urriak 20

Amaiera: abenduak 15

Hizkuntza: gaztelania

Plastika artistikoan agertzen diren emakumeen irudiek, bai pinturan bai eskulturan, genero estereotipoetan oinarritutako emakume ereduak adierazten dute, ikuspegi androzentriko baten pean. Eredu honek irudi finko bat sortzen du, unibertsa eta mugiezina dena, forma estetiko batzuen bidez legitimatua izan dena. Eta hau indarkeria sinboliko mota bat da, zeina argitara ateratzea oso zaila den.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

URBANISMOA GENERO IKUSPUNTU BATETIK

(2 saio)

Formatzailea: Edurne Aperribay

Eguna: asteartea

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: azaroak 2

Amaiera: azaroak 9

Hizkuntza: gaztelania



Bi jardunaldi hauetan zera ikusiko dugu: genero ikuspuntua urbanismoan txertatzeak aukera berdintasuneko egoeran jartzen ditu mundu produktiboaren existentziak eta pertsonei zuzendutako arreta. Emakumeen desirak, beharrak eta ekintzak kontuan hartu gabe proiektatu eta kudeatu izan dira orain arte espazio publikoa, urbanoa eta landa; baita hiritarren zati handi bat kontuan hartu gabe ere. Ondorioz, hiria birpentsatu egin behar dugu, ahaztuta daukagun gehiengoa aintzat hartuz.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

BIZIRAUTEN FEMINISMOA II.

(7 saio) ONLINE

Formatzailea: Irantzu Varela

Eguna: asteartea

Ordua: 18:00 - 20:00

Hasiera: irailak 14

Amaiera: azaroak 2

Hizkuntza: gaztelania

Udaberrian burutu genuen tailerraren jarraipen honetan gai hauek landuko ditugu: Intersektionalitatea: feminismoa forma guztien aurkako borroka bezala. Gaur egungo feminismoaren inguruko eztabaida irekiak: prostituzioa eta pornografia; trans identitateak eta feminismoaren subjektu politikoa. Borroka feministaren eta LGTBI kolektiboaren arteko artikulazioa. Ekonomia feminista eta bizitzaren jasangarritasuna: sororitatea, autozaintza eta zaintza kolektiboak. Etorkizunerako feminismoaren erronkak.

Gai hauek interesatzen bazaizkizu, eman izena. Ez da beharrezkoa udaberriko tailerren parte hartu izana.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

EROTISMOA ETA AUTOEZAGUTZA

(2saio)

Formatzailea: Clara Wolfram

Eguna: asteartea


Ordua: 18:30 - 21:00

Hasiera: irailak 28

Amaiera: urriak 5

Hizkuntza: euskara

Erotika bizitzaren dimentsio bat da, sentitzen eta desiatzen dugun hori azaltzeko era bat. Energia hori berreskuratu dezakegu edozein adinetan, edozein gorputzetan. Tailer hau konfiantzazko gune bat izango da jolastu ahal izateko eta baita garenarekin esperimendatzeko ere. Goazen daukagun gorputz eder hau mugitzera. Goazen dantza egitera, barre egitera eta baita momentuan behar dugun hori bilatzeko mugatzen gaituzten usteak zalantzan jartzera ere. Hau guztia gu eta besteak errespetatuz egingo dugu, erresistentziak apurtu gabe, gure desberdintasunei balioa emanez eta benetan aha-legenduz guztiak eroso sentitu gaitzen.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

GENERO ARRAKALA ITXIALDIA ETA GERO: EKONOMIA, LANA ETA ZAITZAK

(7 saio)

Formatzailea: Emagin Elkartea

Eguna: astelehena

Ordua: 17:00 - 19:00

Hasiera: urriak 4

Amaiera: azaroak 29

Hizkuntza: euskara

Osasun krisiak argi utzi du zaintza lanen garrantzia eta premia. Egun batetik bestera zaugarritasuna agerian geratu da, gizaki garen aldetik pertsona orok berezkoa duguna, baina egunerokoan ezkutatzen saiatzen garena, alegia. Bizitzak Erdigunean aldarrikatzeak, zaintza sistemaren hutsuneak eta arrakalak ikusaraztera igaro gara urteotan. Inoiz baino nabarmenago geratu da zaintza aurpegi biko txanpona dela: batetik, aldaketarako eta iraultzarako tresna dugu, guztion bizitzak (bakoitza bere berezitasunarekin) erdigunean jartzeak kapitalismoaren logika basatiari aurre egiten baitio ezinbestean; bestetik, ordea, indarkeria tresna da, zaintza lanak ez baitaude era parekidean banatuta, gehien bat emakumeok hartzen ditugu geure gain eta horrek beste esparru batzuetan (enpleguan, aisian, militantzian...) parte-hartzea mugatzen digu.

Tailerrean ekonomia, lana eta zaintzaren inguruko hausnarketa kolektiboa eragingo dugu era dinamikoan, eta norbere esperientziak aintzat hartuz. Horretarako, zaintza lanen dimentsio ezberdinetan jarriko dugu arreta.

Batetik, ekonomia feministak eskaintzen dizkigun gakoak ezagutuko ditugu; bestetik, etxeko eta zaintza lanen genero arrakalaren ibilbide historikoa aztertuko dugu, hiru arlotan: amatasuna, gizonen parte hartzea eta etxeko langileak. Azkenik, tokian tokiko zaintzak demokratizatzeko prozesutan arakatuko dugu. Finean, egungo zaintza sistema ezagutuko dugu, iraganetik ikasiz eta etorkizuna berrasmatuz!

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten?
Kalean aske sentitu nahi duzu?
Uste duzu ezingo zarela defendatu?

GAZTELANIAZ

Urriak 22 eta 23 (12 ordu)

Ostirala 22

16:00 - 20:00

Larunbata 23

10:00 - 14:00

15:00 - 19:00

Formatzailea: Isa Bernal

EUSKARAZ

Azaroak 6 (8 ordu)

Larunbata 6

10:00 - 20:00

15:00 - 19:00

Formatzailea: Emagin

Antolatzailea: Berdintasun Saila



MATRAKA GUNEAK

Gune hauek irailean irekitzen ditugu eta batzuetan, toki libreak geldituz gero, urtarrilean ere bai. Bertan ikasturte osoko lanketa feminista bat egiten da eta Etxetik kanpoko proiektzioa duen talde bat sortzen da.

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea:	Iratxe Retolaza
Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 19
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara

Irakurle talde honetan ahalduntze eta kontzientziatze feministan sakonduko dugu, betiere ardatz hartuta pentsamendu kokatua eta gorpuztua. Horretarako, esperientzia eta pentsamendu feministek sorturiko galderak, kezkek, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Helburua izango da askotariko irakurgaietatik abiatu (testu solteak, artikulua, liburuak...) eta trukerako gune bat sortzea, pentsamendu kolektiboa sustatzeko eta Euskal Herriari zein euskal kulturari buruzko pentsamendu kritiko-feminista garatzeko asmoz.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ZUBI ARTISTIKOAK EUSKAL LITERATURAN

Formatzailea:	Iratxe Retolaza
Eguna:	asteazkena hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 6
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara


Askotarikoak dira literaturaren eta beste adierazpide artistikoen artean sorturiko zubiak, espazioak eta katebegiak. Mugako espazio artistikoak ugariak dira, espazio artistiko hibridoak ugariak dira, eta zenbaitetan halako mugako espazioetan sortu dira ekarpen feminista interesgarri askoak. Mugako espazio horietan sorturiko ekarpen artistiko-literarioak izango ditugu irakurgai eta solasgai irakurketa-talde honetan: batzuetan kantuen interpretazioak egingo ditugu; beste batzuetan nobelak irakurtzearekin batera, nobelan oinarrituriko filmeen interpretazioak egingo ditugu; eta abar.

Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahalegingunduko gara irakurketa-talde honetan: zein adierazpide artistikoren arteko zubiak eraiki dira euskal literaturan? Zubi artistiko horietan zer genero-posizio edo genero-ikuspegi eraiki dira? Interpretazio-erak nola aldatzen dira testu idatzitik beste adierazpideetaranzko bideak eraikitzean (ahozkotasuna, performatibitatea, ikus-entzunezkoa...)? Zer genero-interpretazio berri sortzen dira adierazpide batetik besteranzko jauzi hori egitean?

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS (Bi talde)

Emakumeen literaturako bidaia infinitua izan daiteke, eta halaxe da, izan; baina, infinitua gure esku ez dagoenez, bi urteko ibilaldi bat egitea proposatzen dizuegu, gainerako bidean aurrera egiteko tresnak emango dizkizuen ibilaldia. Ingalaterrako emakume klasikoak bisitatuko ditugu, Parisera erbesteratutako amerikarrak, modernismoko emakumeak eta Harlemeko errenazimentukoak, besteak beste. Eta liburuez hitz egingo dugu, horixe egiten dute Parlerak eta.



PARLERAS 1

Oraindik era honetako beste lantegi batzuetan parte hartu ez eta emakumeen literaturarekin bi urteko konpromisoa hartu nahi duten emakumeentzat pentsatua.

Formatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	astelehena, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 4
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS 2

Aurten Parleras I ikastaroko parte izan diren emakumeei zuzenduta dago ikastaroa eta, edukiera bete arte, 2020-21 ikasturteko Parleras II ikastaroko partaideek ere eman ahal izango dute izena.

Formatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	asteartea hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 19
Tokia:	GANDHI aretoa, Aieteko Jauregia
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun Saila

VENTANERAS: PARKE ETA LORATEGIEN ZERBITZUA

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: osteguna,
hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 21:00
Hasiera: urriak 14
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Emakumezko idazleak naturarekin harremanetan egon dira, hala nola Bronte ahizpak Basamortuak zeharkatuz, Ursula K Le Guin munduari izena emanez, Rachel Carson ekologismoa sortuz edo Jane Austen lorategian pasieran ibiliz. Natura ihesbide bezala erabili dute eta beraien idatzietan islatu dute. Batzuek, gainera, parte bat salbatu dute edo behizat saiakera hori egin dute. Naturara itzultzea ez da utopia berri bat emakumeontzat, baina agian orain inoiz baino beharrezkoagoa da eta, horregatik, ikasturte honetan zehar, haren inguruan irakurriko dugu onenen itzalean.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:30 - 20:00
Hasiera: urriak 13
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna (*)

Gune honetan prozesu lana bultzatzen da, bizipenezko eta gorputz adierazpeneko tailer baten bidez, non kontzientzia fisikoa, emozionala eta politikoa hartzea den helburu nagusia.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

(*) tailer elebidunetan, gutxienez, euskara ulertu behar da.

CLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: irailak 27

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna (*)

*Jolastea txikien gauza da;
mozorrotzea tontakeriatan ibiltzea da;
emozioak bere osotasunean azaltzeak des-
oreka adierazten du;
zaila da elkarrekin lana egitea;
bizitzan ez da dena iji eta aja.*

Umekeriak eta tontakeriak egin nahi badi-tuzuzu, emozioak dantzan jarri nahi badi-tuzuzu... etorri gurekin, elkarrekin errazagoa izango da. Dena ez da iji eta aja izango, baina barrez atseginagoa da.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

FLAMENKO FEMINISTA

Formatzailea: Askoa Etxebarrieta
"La Pulga"

Eguna: osteguna

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: irailak 30

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna (*)



Flamenkoaren bitartez lan egiteko gune berri bat sortuko dugu, oso garrantzitsuak diren gaiak lantzeko xedearekin, hala nola gorputzarekiko konexioa eta genero aginduaren subertsioa. Flamenkoak ezin du ikusi itxurakeria, eta deitzen gaitu samina, tristura, alaitasun eta gozamenaren energia bideratzera. Zatoz exortatzera flamenkoaren bidez!

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

(*) tailer elebidunetan, gutxienez, euskara ulertu behar da.

KOROA

Formatzailea: Bettina Aragon

Eguna: ostirala

Ordua: 19:30 - 21:00

Hasiera: urriak 1

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Oharra: momentuz, soilik itxaron zerrrenda irekiko da

Ederlezi abesbatzak aurrera jarraitzen du aurten ere, Donostiako Emakumeen Etxeko taldeko kantu tailerraren proiektuak, alegia; borroka abestu ere egiten delako, feminismoak ehunduz ahotsen bitartez, baita urtero sortzen ari diren abesti aldarrikatzaileen bitartez ere. Kantuan esperientzia badaukazu eta proiektu feminista honetan parte hartu nahi baduzu, aurten berriro irekiko diegu taldea ahots berriei; beraz, eman izena!!



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

XAKEA

Formatzailea: Leire Cruz

Eguna: asteazkena (X1)
osteguna (X2)

Ordua: 18:30 -19:30

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna (*)

Hasiera: **Xake 1** (X1)
urriak 6

Xake 2 (X2)
urriak 7



Donostiako Emakumeen Etxeko Xakibazi xake taldeak leku berri batzuk irekiko ditu, lehiaketetan parte hartu nahi duten emakumeei zuzenduta, xakean emakumeen presentzia bultzatzeko xedearekin. Lehiatzea gustatzen bazaizu, eta proiektu feminista batean saretu nahi baduzu, hau da zure gunea!

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

(*) tailer elebidunetan, gutxienez, euskara ulertu behar da.

BATUKADA FEMINISTA

Donostiako Emakumeen Etxeko Sor-
ginbanda batukadak musika ikaste-
ko gune bat sortu zuen, ikuspuntu
feminista eta eraldatzaile batetik,
non ikasteaz gain, emakumeon parte
hartzea bultzatu nahi duen, kaleak
gure instrumentuekin eta gorputze-
kin okupatuz, ekintza aldarrikatzaile
desberdinen bidez borroka feminista
babesteko.

Formatzaileak: Ainara Sarasketa,
Arantxa Vicedo

Eguna: larunbata

Ordua: 11:30 - 13:30

Hasiera: urriak 16

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna (*)

Oharra: momentuz, soilik itxaron ze-
renda irekiko da

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



(*) tailer elebidunetan, gutxienez, euskara ulertu behar da.

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako balia bideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkarte

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

     **943 48 34 70**

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodo-logia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

**Asteazkena
10:00 - 14:00
Hitzorduarekin**

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen
Elkartea

**Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin**


Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

**Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin**

Sare sozialetan:

 @lahia3.0

Emaila:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

**Asteartea
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin**

Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak HOMOLOGATZEKO aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bidez

**Osteguna
10:00 - 13:00
Hitzorduarekin**

